

Herri- eta Nazio-Eskubideen Aldarrikapena, Eusko Ikaskuntzaren baitan eginiko proiektua

(Proclamation of the Rights of Countries and -Nations draft
produced within Basque Studies Society)

BENGOETXEA, Joxerramon

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila
Manuel de Lardizabal, 2
20018 Donostia
joxerramon.bengoetxea@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 19; 67-70]

Sarrera

1918an sortu zen Eusko Ikaskuntzak, kultura-entitate, inpartzial, zientifiko, jakite eremu askotakoa eta edozein menpekotasun politikotik askea bezala, badu tradiziozko konstituzio-mailako testu eta proposamen hainbat planteatu eta plazaratzen. Espainiako II Errepublikara garaiko Lizarrako Estatutuaren ekimena berari zor diogu neurri handi batean. Europa mailan ere Europaren etorkizunerako Komentzioa eratu zenean, Eusko Ikaskuntzak Europar Federakuntzaren Konstituzioa eztabaidatu zuen bere baitan eta testu hau Komentzioari helarazi zion. Ildo beretik Eusko Ikaskuntzaren Zuzenbide Sailak 2009 urtean Herri- eta Nazio-Eskubideen Aldarrikapenaren proiektua onartu zuen aho batez. Egitasmo hauek arlo publikora jaurtitzeko bokazioa dute, ezinbestean, Herri guztien askatasun eta duintasuna ziurtatzeko Zuzenbidearen eta Justiziaren eremuetatik lan egiteko

zeregin beharrezko, baliagarri eta premiatasunaz jabetuta eta Justiziaren eta Munduko Bakearen oinarri bera osatzen duten oinarrizko Giza Eskubideen garapenari lagungarri izateko asmo sendoa alegia.

Saio intelektuala izanik ere izari praktikoa ere hartzen dute eta horrela Ikaskuntzarako den Erakundeak kokatzen den gizarteari nolabaiteko ordaina edo zerbitzu ematen dio, alderdien politika gairatzen duen saio praktikoa proposatuz, Euskalerrriak dituen kezkei erantzuten lagunduko duen proposamena eginez. Beste ikuspegi Habermaszaleago¹ batetik esan leike, horrelako proposamenekin –halanola Euskalerrirako Estatutua, Europar Federakuntzaren Konstituzioa, edota Herri zein Nazioen Eskubideen Aldarrikapena– Eusko Ikaskuntzak eremu publiko komunikatzailea lantzen doa non iritzi eta asmo publikoak eratzen diren. Proiektu interesgarri hau eta bere ibilbidea azalduko dugu hurrengo lerroetan.

Egilea

Proiektuak badu bere aita. Zirriboroaren egilea On Jose Manuel de Zabala da, adin nagusiko enpresagizon bilbotarra. Berari zor diogu proiektu honetara eraman duten zirriborro guztiak eta berari, proiektuen atzetik edo oinarrian dagoen bizitza luze baten ikerkuntza pertsonala, Mundu mailan eta nazioarteko erakundeetan onartu diren Eskubideen Aldarrikapen ezberdinen ikerlari-aztertzaile amateur edo zalea, ez ahatik makala. Zabala jauna, kristau fede sendo batek gidatua, jakinminez eta grinaz ekin zion duela urte batzuk, premiazko ikusten zuen ekimenari, alegia Euskalerrriak, nazio izanagatik, beste nazio ororen gisan, berezko dituen eskubideak identifikatu, aitortu eta aldarrikatzeari. Bere kokapen intelektuala zuzenbide natural razionalistaren hesparruan datza, aurreko beste aldarrikapen asko bezala, esate baterako Estatu Batuen independentzia aldarrikapena eta Bill of Rights, edo Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Proiektuaren lehenengo zirriborroa Eusko Ikaskuntzaren baitan aztertu zenean, Maritain edo Truyol tankerako pentsalarien eragina nabari zen. Azkenean onartu zen Proiektua, tradizio horri muzin egin gabe, intelektualki irekiagoa da, beste tradizio edo ikuskizun teorikoetatik kezkarik gabe onargarri egiteko. Jakina, horretarako ezinbesteko egiten da giza eskubide kolektiboen berezko baliozkotasuna (eta existentzia) onartzea.

Eusko Ikaskuntzaren baitan izandako ibilera

“Herrien Eskubideen Aldarrikapen” proiektua idatzita zeukanean, Zabala jauna Euskadi mailako hainbat alderdi politikoetako buruzagirekin harremanetan jarri zen, eta Estatuko buruzagiei helarazi zien. Halere, proiektuak ez zuen espero zitekeen harrera lortu. Orduan, estrategiaz aldatu zuen egileak. Politikariengana jo beharrean, herriko jakintza-erakundeengana jotzea otu baitzitzaien. Horretarako aspaldiko adiskide zuen Adrian Celaya jurista txit argiaren laguntzaz Eusko Ikaskuntzako orduko presidentearekin adostu zuten proiektuari begirada bat botatzea. 2007.eko udazkenean bilera bat antolatu zen Bilboko egoitzan Eusko Ikaskuntzaren eta Jose Manuel de Zabala jaunaren artean. Zuzenbide Saileko arduraduna zen Jon Etxabe abokatuak, Bizkaiko Elko presidenteordea zen Jon Kortazar idazle eta literatura kritikariak, enbajadore gisa, eta irakurtzen ari zaren idazkiaren egileak Eusko Ikaskuntza ordezkatu zuten, Retegi presidentearen gurariari kasu eginez. Adrian Celayaren enbaxadaz, Zabala jaunak Aldarrikapena aurkeztu zigun eta guk, gure aldetik, arakatzeko kritikoa egiteko konpromisoa hartuta, erantzun bat emateko agindu genion.

Zuzenbide Sailak Aldarrikapena aztertu eta, hala suertatuko balitz, berea egiteko konpromisoa hartu zuen eta Batzorde bat eratu zen gaia lantze aldera. Eusko Ikaskuntzakokide diren hainbat ikerlariren eskutara zabaldu zen Aldarrikapena eta erredakzio Batzordea osatu zen Zabala jauna, Juanjo Alvarez jurista ezaguna, Eurobask erakundeko idazkari, UNEDeko Bergarako zuzendaria eta Nazioarteko

Zuzenbide Pribatuko EHUko katedradun, eta hirurok osatua, eta azkenean, emendakinak emendakin, erderazko bertsioa Zuzenbide Sailean aurkeztu zen. Bai eta txalotu ere. Euskerazko bertsioa gerturatu zenean, Aldarrikapenaren testu elebiduna onartu zuen Zuzenbide Sailak 2009. urtean. Saio bat egin zen Zuzenbide Sailetik gorago Eusko Ikaskuntzak, erakunde osoak, Aldarrikapena proiektuari XX. mendeko aurrekariari itsatsiriko garrantzia eta hedakuntza honi ere eman ziezaien, baina Sailaren ekimen bezala gera zedin adostu zen, Sailak erabaki zezan Proiektuak nolako hedakuntza eta itzala izan beharko lukeen. Beraz proiektua Zuzenbide Sailearena da eta argitalpen hau Sailaren eskutik agindu da.

Aldarrikapenaren ildo nagusiak

Ez da hau Aldarrikapena laburbiltzeko lekua. Ez da luzea eta onena testua bere osotasunean irakurtzea da. Alta, zilegi begit zertzelada solte batzu zirriborrotzea.

Aldarrikapenaren hitzaurrean, alde batetik estatu nazioanizdun batzuren eta bestaldetik estatu horiek osatzen duten berezko estaturik gabeko herri eta nazioen arteko harreman gatazkatsuen status quuari egiten zaio aipamen. Egoera honek Nazio Batuen Sormeneko Gutunaren asmo, oinarri eta helburuen baitan herri guztien arteko Askatasunaren, Justiziaren, Zuzenbidearen eta Bakearen ezarpenarekin kontrastatzen du. Korapiloa askatzeko harreman horiek hobetu eta baretu behar dira herrien eta nazioen eskubideen aitortzaren kariaz. Estatu propiorik gabeko Herri eta Nazioen giza eskubideak Zuzenbide positibo unibertsaleko erregimen batek babestuak behar dutela izan, horretara gizakiok eta herriak tiraniaren eta opresioaren aurkako matxinadaren baliabide goren erabili beharrean izan ez gaitez, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren elean.

Zioen azalpenean bereziki aipagarri Bakearekiko gorazarrea da, eskubide guztien baldintza et aldi berean helburu. Honekin batera beste balore nagusia: duintasuna. Nazioarteko Giza Eskubideen Gutunak dakartzan beste baloreak datoz ondoren, pertsonen askatasuna, berdintasuna eta tolerantzia eta herrien askatasuna, berdintasuna eta determinazio librea. Baina Nazio Batuen Erakundea, subiranoak diren Estatuez bakarrik eratu eta mantenduta dago eta Estatu propiorik gabeko Herri eta Nazioei La Hayako Nazioarteko Justizia Epaitegira jotzetik bazterten du eta hori eginez berdintasunaren printzipioa hautsi egiten du eta Estaturik gabeko Nazioen askatasun eta eskubideak baztertu egiten ditu, bake unibertsalaren helburuaren kaltetan. Herrien burujabetasunerako eskubide unibertsala aitortzea barne eta kanpo istiluei irtenbide baketsua emateko eragingarri da, eta horrek askatasunean eta justizian elkar bizitzeko itxaropen berriak zabalduko ditu. Hizkera dotorea eta garaia da atal honetan erabiltzen dena, baina garrantzitsuena da hainbat nazioarteko (nagusiki Aldarrikapen Unibertsala, zuzenbide biguna dena eta 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Deklarazioa, juridikoa berau) eta europear Eskubideen aitortpenari egiten zaion aipamen zehatza, Proiektuaren oin eta

funts gisa. Halere, nahiz eta solemnitaeaz mintzatu, Proiektua ez da gurarian edo utopian geratzen. Alderantziz, jakitun da istilu bakoitzak, bere sustrai historikoengatik eta Herri eta Nazioen inguruabar desberdinengatik, arazo korapilatsuak dakartzala. Halaber, nazioarteko zuzenbideak status quo delakoari aitortzen dion errespetoaz jabetzen da; esate baterako 8. Artikuluan: "Herrien artean elkarbizitza baketsu arrunta ezinezko egin dezaten ohiz kanpoko egoerak eman daitezenean; Estatuak eskubide kolektiboak eta oinarritzko askatasunak larri hautsi ditzatenean, edo bidegabekeria historikoen zuzenketan eta kultura baloreen autodefentsan jardutera bultzatuta izango balira, Herriek, elkarrizketarako eta ulermenerako bide guztiak agortu ondoren, Zuzenbidez euren bizitza eta gobernu berrabizitzeko gaituta egongo dira, neurri goren bezala sezessorako eskubidea egikaritzea erabakiz, eta Herri eta Nazioen munduaren aurrean bere askatasun eta burujabetasunaren arrazoiak aldarrikatuz (2625 Erabakia, NBEarena, 1970ekoa)".

Eskubideen zerrendari dagokionez, lehenbiziko artikulua Aldarrikapen osoaren jitea dakar, alegia nortasunean, kultural eta historian askotarikoak izanagatik ere Nazio guztiak izaeraz, duintasunean, berdina direla, eskubide eta betebeharrak berdinen jabe direlako, inolako bazterkeriarik gabe. Dagozkien askatasun subirano, egiazko, oso eta solidarioa egikaritzeko berdina dira. Betebeharrak ere badaude, nagusiki nazio-kideen, pertsona ororen duintasuna eta askatasuna errespetatzea. Hurengo artikulua biak (2. eta 3.) eskubideen ezaugarriak ezartzen ditu. Artikulu batzuk (adibidez 4.na herri, nazio ta estatuak; 13.na subirautzaz; 14.na lurraldeaz eta 15.na subsidiaritateaz) kontzeptual edo teorikoagoak dira, ia ia Herrien eskubidei buruzko eskuliburu eskematiko batean irakur litzatekeen antzera. 4. artikulua kontzeptuala eta teorikoa da, nazio, herri zein estatu terminoak buruz. Baina eskubide garrantzitsu bat azpimarratzen da: "Edozein Herri bere erabakimen askatasunerako duen eskubidea aldarrikatzen dugu eta, bere baitan, NAZIO bezala auto-baiezatzera eta bere lurraldea auto-definitzera.". Hemendik jarraitzen da Aldarrikapenaren aurkakoak direla (1) Estatu bezala eraturako Herri eta nazioei NAZIO izendapena eskusibotasunez beregain hartzea. Edota (2) Estatu (bere) nazioetarik bakar baten inguruan egituratzea, beste gainerako nazioei dagokien izaera eta eskubideak ukatuz eta, inolako zuribiderik gabe, gutxiengo etnikotzat jotzea.

Ondorengo artikuluetan Herrien eta Nazioen eskubideak aipatzen, zerrendatzen dira: existitzeko (5.); askatasunean erabakitzeko (6.); autodeterminazioaren barne egikaritzea (7.); kanpo egikaritzea (8.) eta Estatuak eskubide hau leialtasunez betetzeko duten beharra (9.) Garapenerako Eskubidea (10.)

Aldarrikapena ez da Herri ta Nazioen Eskubideetara mugatzen, izan ere, eskubide hauen bestekaldean Estatuak betebeharrak edo obligazioak daude (11.) bereziki Nazioanizdun-Estatuena (12.) edo 15.na subsidiaritateaz, 16.na elkartasun beharraz; 17.na eta 18.na indar armatuetaz eta defenditzeko eskubideaz. Autodeterminazio ekonomikoa deritzona ere jasotzen da Aldarrikapenean; hala nola 19.n artikuluan bidezko nazioarteko trukeaz (esplotazioaren debekua), edo 20.nean trafikoa eta mundu mailako armen estraperloaz.

Subirautza konpartitua

Existenziarekin batera Autodeterminazioa da herrien eskubide garaikoa. Ildo honetatik jarraituz, aipagarri iruditzen zait burujabetzaren inguruan Aldarrikapenak ematen dituen aurrerapausoak. Honako pasarte nahasian, Euskadi bezalako nazioei aukera edota eronka ekar diezaiokkeen burujabetza konpartituaren ideia agertzen zaigu: "Subiranotasuna Herriarengan datza eta bere gauzatzea herritarrei dagokie; bera da botere publikoen zilegizko agintearen oinarria [13]... Estatuak betebeharra da, elkarbizitza baketsu eta gobernu metodo eta eredu bezala, erakunde hori osatzera datozen Nazioekiko bere harremanean, "aniztasunean berdintasuna"ren eta Estatuaren parte-hartze askearen printzipioetatik abiatuz subiranotasun partekatuen eredu hedatzea, NBEaren, EUROPAR BATASUNA bezalako erakundeen eta beste nazioarteko organismo batzuen baitan praktikan jarri. [12]... Nazio anitzeko Estatuetan, Nazioen arteko harremanak, subiranotasun partekatuen oinarrietan iradokituko dira, hartu beharreko erabakiak herritarrengandik ahalik eta erarik hurbilenean hartzen ahaleginduz, beti ere solidaritate eta eskumenezko ordezkatzeko politikoa eta administraziozko printzipioen arabera" [13]

Aldarrikapenaren eraginkortasuna

Azken artikulua, ohi bezala, lanabesaren ingurukoak dira, bere eraginkortasuna, auzibideko berma eta egikaritze zein interpretazio egokia ziurtatzeko asmotan. 21.na Nazioarteko Auzitegietaz da. 22.na Zuzenbidearen errespetoa nagusitzea aldarrikatzen da: Aldarrikapenean jasotako "Eskubide eta askatasunak ezin izango dira, inola ere, Deklarazio honen asmoen aurka ez Gutunean diren oinarrien aurka eta ezta Nazio Batuen Erakundearen oinarrien aurka egikaritu". 23.na Hitzarmenak (fideltasunez eta leialtasunez) betetzeaz 24. interpretazio irizpideak. Asmo nagusia Aldarrikapenaren pasarte honetan laburbiltzen da: "Estatuak betebeharra da euren menpe dagoen edozein Estatu propiorik gabeko Herri edo Naziori, Deklarazio honetan, nazioarteko legeetan eta Estatuak Konstituzioetan aitortutako euren oinarritzko eskubideak urratu ditzaketek ekimenean aurkako babesa emango lioketen aginpidedun nazioarteko epaitegien aurrean helegite eraginkorra azaltzeko eskubidea aitortzea".

Proiektuaren garrantzia

Zaila litzateke Aldarrikapenaren proiektuak duen garrantziaz ez jabetzea. Alde batetik, Unibertsala da eta edozein herri zein naziori buruzkoa da. Ez da Euskadirentzat bakarrik pentsatutako agiria eta zentzu horretan komenigarria litzateke Aldarrikapena munduan eman eta zabaltzea. Baina modu berezi batean Euskadin oso hedatuta eta berranarata dagoen ikuspegia adierazten da, herri honetan nazioaz edo autodeterminazioaz pentsatzen dugunaren, kezka zein sinismenen, topoi eta dogmen konpendio edo bilduma litzateke. Horregatik

Euskaldun asko eta asko testu baten inguruan adostasunean biltzeko potentziala luke; sektarismo eta zikoizkeriak baztertzuz.

Neurri handi batean Aldarrikapenak herrien eskubideak, taldearen elkartasuna eta nortasun kolektiboa eta Giza Eskubideen liberalismoa, norbanakoaren autonomia gorensten duena, uztartzen ditu, John Rawls-ek (Kanten liberalismoa) beraz edo Charles Taylor (komunitarista irekia) bezalako filosofia praktikoaren teorikoek ontzat jo lezaketena. Gizataldeen Giza Eskubideen funtsa edo oinarritze filosofikoa ez da eginkizun baketsua. Talde eskubideak gaurregungo gizarte anizteta eta nazioarteko zuzenbidean babesten diren moduan hiru motatakoak dira: etorkinen taldeak gizarte modernoetan eta globalizazioaren garain; gutxiengo nazionalak Estatu nazioanizdunetan eta herri indigenoak. Aldarrikapena bigaren kasuari buruzkoa da batik bat.

Herri indigenoen inguruan 2007. Urtean Nazio Batuen Erakundeak aldarrikapen unibertsal interesgarria onartu zuen. Etorkinen eskubideen inguruan Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua arduratzen da, 1966. Hitzarmenak gainbegiratu eta interpretatu. Berezko Estaturik gabeko Nazioen kasua aldiz, nazioarteko zuzenbidearen piskanaka zorionez gaintitzen ari den interpretazio murriztaren kariaz deskolonizatzeko prozesuekiko baldintzatua izan da. Europa erdi eta ekialdean gertatu diren dinamikei esker –Jugoslavia ohiaren kasuan tamalez prozesu bortxakorren ondorioz baina Baltikoan, eta Europar Erdialdean modu baketsuan– eta Europar mendebaldean modu baketsuan sortzen ari diren dinamikak –Eskozian, Catalunyan, Flandrian esate baterako– mahai gainean utzi dute berezko estatua sortzearen gogo. Hauek guztientzako Aldarrikapen proiektu hau baliogarri egingo zaie.

Aldarrikapenak duen beste meritu bat da naziotasun etnikoa gaintitzen duela naziotasun zibiko baztertzaila batean jauzi gabe. Askotan nazionalistek leporatzen zaie hain zuzen nazioaren ikuspegi murriztua edo mugatua dutela, kulturbakarrekoa, elebakarrekoa, tradizionala, aldaketa sozialari bizkarra ematen diona eta globalizazioaren aurrean jarrera defentsiboa hartuko lukeena, eta alternatiba edo irtenbide gisa naziotasun hiritarra proposatzen da, zibikoa alegia. Baina proposamen hauen atzetik askotan, ez beti, estatu jakin baten kidea ezkutatu da, naziotasuna eta hiritartasuna hainbat eta hainbat etorkinei ukatzen zaielarik, edo naziotasunak dakarren berdintasunaren eskakizuna uniformidade bezala ulertzen dute, errepublikar berdintasuna orduan hizkuntza nazionalarekin parekatzen da. Agian horregatik Europako Kontseiluko Parlamentu-Asanbladak nazioen inguruko kontzeptuari buruzko adierazpenean zera adierazi du: “Estatu-nazioaren garapenaren norabide orokorra honen eraldaketa da, kasuan kasu, estatu-nazio etniko edo etnozentrkotik

estatu zibikora eta honetatik kulturazdun estatura, non eskubideak aitortzen zaizkien ez bakarrik gizabanakoei baina baita kultur- edo nazio-gizataldeei”².

Aurrerantza begira

Potentzial hori baldin badu, euskaldunak ideia garbi batzuren inguruan biltzearena hain zuzen ere, desiragarri litzateke Proiektu hau Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Saitetik haratago hedatzea eta gure kide guztien artean zabaltzeaz gain, herriko erakundeetan aurkeztea, bai akademiko edo ikerkuntza asmo dutenetan bai erakunde politikoetan edo sozialetan –sindikatuak, gobernuak besteko erakundeak, kultur erakundeak, etab. Eusko Ikaskuntzak arlo honetan joka dezakeen zubi edo topagune errola polita da benetan. Zintzotasunez eta ausardiarekin joka dezala opa diogu.

2. Resolution 1735 (2006) on the concept of nation- Assembly debate on 26 January 2006 (7th Sitting) (see Doc. 10762, report of the Committee on Legal Affairs and Human Rights, rapporteur: Mr Frunda). Ingelesean: “the general trend of the nation-state’s evolution is towards its transformation depending on the case, from a purely ethnic or ethnocentric state into a civic state and from a purely civic state into a multicultural state where specific rights are recognised with regard not only to physical persons but also to cultural or national communities”.